

latutako formakuntza saioak egiten dituzte, Irlandako historiaren berri jaso dezaten. Hala, 70.000 pertsona inguruk hartu dute parte aurtengo edizioan antolatatu diren ekimen ezberdinetan, izan kontzertuak, hitzaldiak, solasaldiak edo *tour* ezberdinak.

Bertako auzi politikoak jorratzeaz gain, nazioartean unean-unean pil-pilean dauden gatazkei begiratzeko tartea ere ematen du jaialdiak. Palestinak hartu du aurtengoan garrantzia berezia, Israelgo armada Gazako lurretan garatzen ari den ofentsiba militarren ondorioz. Hala, hitzaldiak, bideo emanaldiak eta bestelako ekintza ugari antolatu dituzte Palestina eta Israelen arteko gatazka oinarri.

Aurrera begira, buruan daukan ametsa aipatu digu Gamblek: Ipar Irlandan erakitzen ari diren elkarbizitzaren garapean jaialdiak funtsezko eginkizuna izatea. Belfast osoko jaialdia izatea eta urteekin bi komunitateen arteko liskarrekin amaitzea dutela helburu gainera-

Jaiak ez ezik formakuntzak ere leku garrantzitsua dauka jaialdian. Hala, udako eskola erraldoia ere bada berau. Batez ere jende gazteari begira antolatzen dituzte formakuntza saioak, Irlandako historiaren berri jaso dezaten

tu du. Horretarako, aurrez aipatu *bonfire* edo suen adibidea jarri du: abuztuaren 9an hainbat gazte *internment* politikaren aurkako *bonfire*-ak erretzen ari ziren bitartean, milaka eta milaka ziren The Wolf Tones talde irlandar mitikoaren kontzertuaz gozatzen ari zirenak. Iraganekeo kontuak ahaztu gabe (horretarako daude hitzaldi, *tour* eta abarrak), Irlandaren etorkizunaren eraikuntzan ekarpena egiteko tresna izan nahi du Féile an Phobail jaialdiak, bi komunitateen benetako elkarbizitza helburu nagusi gisa hartuta.

«Tontolnabo»

Koldo Sagasti

Tontolnabo". Horrelaxe birbataiatu zuen kazetariren ba-

tek Gasteizko alkatea duela gutxi. Egunkari batean argitaratutako ezizen berria, baina, ez zen berriemailearen kazetari-zintzotasun ariketa baten emaitza izan, zorigaiztoko istripua baizik. Seguruenik idazleak adiera baliatuko zuen karaktere kopurua betetzeko gero Marotoren benetako kargua idazteko asmotan, adjektiboa zuzentzea ahaztu, erredakzioaren eta zentsuraren galbahea pasatu, eta hantxe agertuko zen milaka ale-tan argitaratuta.

Kazetariak, ziur asko, larrutik ordainduko zuen hanka sartzea, baina goitizenak oihartzun handia izan zuen gasteiztarren artean, eta susmoa dut nekez libratuko dela alkate jauna merezitako ezizenaz. Izan ere, azkenaldian babalore fama bereganatzeko meritua egiten tematu da Javier Maroto. Tokiz kanpoko ergelkeria guztien artean hauts gehien harrotu dituztenak bere oldarraldi arrazistak izan dira. Zehazki arabiarrek jarri ditu alkateak eraso xenofoboaren jomugan.

Aste gutxitan inongo funtsik ez duten adierazpenak egin ditu, hala nola, emakume musulmanei igerrilekuean sartzea debekatuko zaiela jantzita bainatzen direlako, edota arabiarrek diru laguntza publikoak eskuratzearren baino ez direla etortzen. Hurrenez hurren bere txatxukeria guztiak argudio sendoz gezurtatu dituzte oposizioak zein udal teknikariek, baina bera temati. Beraz, ezinbestean, "tontolnabo" terminoa arrazakeria eta xenofobia instituzionala salatzekeo asmoa duten hamaika pintada, pankarta eta pegatinatan ikusgai izan da. Tamalez, susmoa dut eraso islamofobo horien atzean udal hauteskundeetan botoak biltzeko estrategia dagoela. Azken batean, Maroto txalotzen duen jende askok entzun nahi duena esan diezaioten baino ez du nahi... Horiekek dira, bada, "tontolnaboak". •



Hamarnaka euskal herritar elkartu ziren Basque Rebel Night jaian.

Belfast Basque Solidarity Committee

EUSKAL HERRIA GOGOAN

Belfast Basque Solidarity Committee batzordeak eta preso ohi errepublikanoak biltzen dituen Coiste elkarteak antolatuta, euskal preso politikoek egun bizi duten egoeraren inguruko solasaldia egin zuten Belfasteko Felons elkartearen jaialdiaren baitan. Hitzaldia joan den abuztuaren 8an izan zen eta bertan Itziar Martinez preso ohiak eta Urko Aiartza Amaiurko senatariak hartu zuten parte. Era berean, abuztuaren 1ean, "Basque Rebel Night" jaia egin zen Belfasteko Red Devil tabernan. Hamarnaka lagun elkartu ziren bertan, eta, Debako Eutsi taldearen kontzertuarekin gozatzen zuten bitartean, Bilboko grebalarien aldeko argazkia ikusi ahal izan zuten bildutakoek.